

Europako Eskualdeetako Legebiltzarretako Lehendakarien Batzarra (EELB) *Milango Adierazpena*

2004ko urriaren 26an onetsia

Eskualdeetako Legebiltzarretako lehendakariak, 2004ko urriaren 25ean eta 26an Milanen batzarturik, ondorengo adierazpena onetsi dute.

1. KONSTITUZIO ITUNA

Lehendakarien Batzarrak poza azaltzen du estatuburuek eta gobernuburuek konstituzio-ituna onetsi dutelako, eta haiei babesa ematea erabaki du. Itunak aro berri bat zabalduko du Europaren eraikuntzan, eta lehentasuna emango zaio legegintza-eskumenak dituzten eskualdeetako legebiltzarrek gero eta gehiago onartu beharri Europako Batasunaren antolamenduan eta haren instituzioen garapenean. Gutun berria Europaren integrazioan aurrera egite bat da, baina ahalegin handia egin beharra dute instituzioek zein herritarrek Europako partaide izatearen sentimendu bat sortzeko, horrek egonkortasuna eta garapena errazteko aukera eman dezan. Herritarrengandik hurbileko diren ber, eskualdeetako legebiltzarrek Europaren ideia zabaltzen lagundu nahi dute nazioetako berreste-prozesuak babestuz. Europako Batasuna sortzeko ekimenek herritarrengandik eta eskualdeetako nahiz tokian tokiko ordezkari-erakundeengandik sortu behar dute batik bat, eta hala egiten zaie dei Europaren etorkizunari buruzko kontsulta handietan eskubide osoz iritzia ematera era parte hartzera.

Lehendakarien Batzarrak uste du eskualdeetako legebiltzarrek Konstituzio Itunaren garapenean parte hartzeko tresna eraginkorrak izan behar dutela. Nolanahi ere, eskualdeetako legebiltzarrek gogoan hartu dute ezagutu egin dela Europako Batasuneko legegintza-prozesuetan duten zeregina, subsidiarotasun-printzipioari buruzko protokoloak ezarri duen eran. Beharrezkoa iruditzen zaie nazioetako eta eskualdeetako legeria lehenbailehen egokitzea eta eskualdeetako legeriaren alorrean subsidiarotasun printzipioa haustearen konstatazioa eskualdeetako legebiltzarretan egin behar dela beti.

Kontuan izanik Eskualdeen Komiteak baduela printzipio hori hausteagatik Europako Justizia Epaitegiaren aurrean errekurtsioa aurkezteko aukera, komeni da eskualdeetako legebiltzarren eta Eskualdeen Komitearen artean informazio-sare bat ezartzea, *ad hoc* erabakirik eta legegintza-eskumenak dituzten eskualdeetako gobernuekin lankidetzan.

Eskualdeetako legebiltzarkideen ustez, haien eta Eskualdeen Komitearen arteko *ad hoc* erabakiak, aurreko paragrafoan aipatutakoak, honako hauek jaso behar ditu:

- a) Eskualdeetako legebiltzarrek berek Eskualdeen Lantaldeari proposatu ahal izatea Justizia Epaitegiaren aurrean errekurtsioa aurkez dezala, dena delako eskualdeari dagozkion gaiei buruz subsidiarotasun-printzipio hori hausten dela uste dutenean.
- b) Aipatutako subsidiarotasun printzipioa hausteagatik Justizia Epaitegiaren aurrean errekurtsio bat aurkeztu aurretik, Eskualdeen Komiteak dena delako eskualdeko legebiltzarri txosten bat eskatu ahal izatea.

Legebiltzarrek azpimarratzen dute ezen, Konstituzio Itun berrian ezarritako nazio-konstituzioak errespetatzeko printzipioaren arabera, elkarteko instituzioek ondo jakin beharko dutela nazioetako

eta eskualdeetako eskumenak nola dauden banatuta eta errespetatu egin beharko dituztela, orobat, eskualdeetako eta hizkuntza mailako dibertsitateak. Bestalde, lankidetzaren leialaren printzipioaren elkarrekotasuna dela-eta, etengabea izango da legeria berriari buruzko informazio-isuria eskualdeetako legebiltzarren eta Europako instituzioen artean.

Lehendakariaren Batzarrak lanean jarraituko du harik eta Konstituzio Ituna garatzeko prozesuaren barruan Europako Batasuneko eskualdeetako hizkuntza ofizialei arreta berezia emango zaien arte.

Bestalde, Europako instituzioek orobat zaindu behar dituzte eskualdeetako gainerako hizkuntzak, errespetua eta babes aktiboa zor zaion Europako kulturarentzako ekarpen diren ber. Europako Batasuneko arauak ezin izango dira inoiz hizkuntza horien aurka interpretatu, eta Europako batasuneko instituzioek aintzat hartu beharko dituzte hizkuntzok etorkizuneko bileretan eta hizkuntza horiek, gizartean errotuta edo ez hain errotuta egon arren, historikoki mintzatzen diren lurraldeetan kokatutako bulegoetan.

Batzarrak adierazpen bat onartu du konstituzio-ituna dela eta (*Konstituzio-itunari eta subsidiaritasun printzipioaren printzipioaren aplikazioari buruzko Adierazpena* du izena), eta adierazpen honi erantsita doa.

Batzarraren ustez, beste aurrerapauso batzuk egin beharra dago Europako Batasuneko demokrazia-defizita gainditzeko eta itunei gerora egingo zaizkion azterketek legebiltzarren arteko lankidetzaren faboratu beharko dute, bai eta legegintza-ahalmena duten eskualdeek Europako Batasuneko bizitzaren parte hartzea indartzea ere.

2. GOBERNAGARRITASUNA APLIKATZEA ETA EUROPAKO BATZORDEAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA

Batzarrak poza azaltzen du *lurralde-elkarrizketa egituratua* atera izanagatik. Elkarrizketa hori Europako Batzordearen 811/2003 adierazpenean aurreikusita dago, Gobernantzari buruzko Liburu Zuriko ekimenen artean.

EELBren ustez, elkarrizketa hori legegintza eta erabakitze sistema batzuen eta besteen arteko koherentzia indartzeko metodoetako bat da, bai eta modu informalean eskumenen banaketa egokia ziurtatzeko eta legegintza eta erabakitze proposman berriak egiterakoan ulermena errazteko metodo bat ere, beti ere Europako dibertsitatea errespetatuz. Elkarrizketa hori goitik beherako partaidetza indartzeko eta Europako politikak herritarrei hurbiltzeko sistema informal bat da.

3. EUROPAKO LEGEBILTZARREN ARTEKO LANKIDETZA ETA EUROPAKO ERKIDEGOKO GAIETAN ESPEZIALIZATUTAKO ORGANEN BILTZARRA (EGEOB)

Europako eskualdeetako legebiltzarren pozarren daude estatu kideetako legebiltzar gehienak Europako legebiltzarren arteko lankidetzarako elkartzearen aldeko direlako. EELBk azpimarratu nahi du eskualdeetako legebiltzarrek badituztela hainbat legegintza-eskumen estatu kide batzuetan, eta egungo lankidetzaren moduari zenbait erakunde-eragile interesatu falta zaizkiola.

EELBk eskerrak ematen dizkio Belgikako Gobernuari Konstituzio Itunari alde horretatik aurkeztu dion zuzenketa aurkezteagatik. Zuzenketa horren arabera, legebiltzar nazionalak aukera eman ahal izango diete eskualdeetako legebiltzarrei legebiltzar nazionalari buruzko protokoloan adierazten den lankidetzarako elkartzeko, konstituzio nazionalak hala jokatzeko uzten duten lekuetan, eta zorianak ematen dizkio, halaber, Europako Batzordeburuari, hipotesi horren aldeko agertu baita.

EELBk argi utzi nahi du legebiltzarren arteko lankidetzarako protokoloak baduela inkongruentzia bat konstituzio nazionalak errespetatzeren pritzipioari dagokionez, subsidiariotasunari buruzko protokoloan ez bezala, zeinean behar bezala egina gelditu baitzen aurreikuspena. EELBk dei egiten die estatu kideei hutsune hori lehenbailehen bete dezaten.

Eskualdeetako legebiltzarrek irmo baieztatzen dute aukera eman behar zaiela konstituzio federal zein nazionalak dituzten estatu kideei beren eskualdeetako legebiltzarrak legebiltzarren arteko lankidetzan sartzeko, gisa berean ematen baitzaie aukera halako estatu kideei exekutibo "ministerialak" Kontseiluko lanetan sartzeko. EELBk uste du estatu kide batzuk printzipio hori legebiltzarren eremuan ere aplikatzearen aurka azaltzea konstituzio nazionalekiko errespeturik eza dela, bai eta estatu kideen barne-antolamenduan esku-sartze bat ere.

EELBk berriro eskatzen du eskualdeetako legebiltzarrak EGEOBn sartzea, aukera dagoen modalitate juridikoen arabera. EELBk legegintza-gaiei buruz elkarrizketatzen jarraituko du Europako Legebiltzarrarekin, hala baitago finkatuta 2003ko akordioez geroztik, eta babestu egingo ditu estatu kideen baitan legebiltzarren arteko lankidetzan egiten diren aurrerapausoak, horretan eskualdeetako legebiltzarretako Europako Gaietarako Batzordeen Sarea egindako aurrerapausoak ere lagungarri izango direlarik.

4. ESKUALDEETAKO ODEZAKARITZARI ETA DEMOKRAZIARI BURUZKO ELKARRIZKETA

Europaren eraikuntza indartzeko bide bakarra herritarren eta hurbileneko ordezkari-erakundeen konprobiso argi eta eguneratua da.

EELBk herritarren eta gizarte ekonomiko, kultural eta zibilaren lankidetzan eta partaidetzan sakondu nahi du, eta hori Europako batasuneko eskualdeetako legebiltzarren eta "auzo berrien" arteko elkarrizketaren bidez. Eskualdeetako Gutunaren lanean sakondu eta aurrera jarraitu beharko da, lan hori EELBk jarri baitzuen abian Florentzian 2003ko irailaren 9an eta Anhem-en jarraitu 2004ko uztailaren 19an.

Ohartarazi egin beharko dira Europako Legebiltzarra eta Eskualdeetako Lantaldea eskualdeetako demokraziari buruzko elkarrizketaren gainean, eta indartu egin beharko da erakunde horiekiko lankidetzak.

Europako Kontseiluko tokian tokiko eta eskualdeetako botereen lankidetzaren bitartez, EELBk, bera baita lankidetzak horren zainzaile, aurrera egin nahi du Europako parte hartzeari eta demokraziari buruzko jardunean, eta eskualdeetako legebiltzarren eta Europako Kontseiluko legebiltzarraren arteko lankidetzak proposatzen du.

5. FEDERALISMOA, ERREGIONALISMOA, DESZENTRALIZAZIOA

EELBk berriro azaltzen du bere prestutasuna eta eskualdeetako legebiltzarren egitekoa, beren eskarmentuaren bitartez, eskualde-demokraziak eta herritarrenganako hurbiltasunak ematen dituzten bakerako eta garapenerako baldintzak sortzen laguntzeko, bai eta abaian diren deszentralizazio eta erregionalizazio prozesuen alde egiteko ere.

EELBk berriro azaltzen die babesak eskualdeetako legebiltzarrek deszentralizaziori, erregionalismoari eta federalismoari dagokienez abian jarritako ekimenei, baita egungo erregionalizazio-prozesuen aurrean ere: NORPEC sarea, Italiako eta Espainiako legebiltzarren arteko lankidetzak, alde biko eta alde askotako lankidetzak instituzioen erreformen alorrean, Varesen 2004ko apirilaren 30ean

izandako Alpeetako hautetsien biltzarren arteko elkarriketa, Errusiarekiko lankidetzan egindako aurrerapausoak, Florentzian irailaren 7tik 18ra egindako Europako eta Afrikako eskualdeetako legebiltzarren arteko lehen topaketa, Afrikan eta Ekialde Hurbilean burutzen diren jarduerak, Amerikako estatuetao legebiltzarburuekiko alde askotako elkarriketa.

Demokrazia digitalaren alorreko esperientziak (*e-democracy*) –italiarren lehendakaritzapean jarri zen abian Eusko Legebiltzarrak koordinaturik– eragin positiboa izango du herritarrekiko harremanak hobetzeari dagokionez, eta hedatu ere egin ahal izango da beste esperientzia batzuen bitartez, hala nola zabalpenarena eta auzo berriena, edota Afrikako erregionalismo hasberria, 2005ean Bilbon egingo den munduko eskualdeen eta hirien goi-bilerari begira.

6. ERAKUNDE EUROPAR ETA NAZIONALEKIKO LANKIDETZA INDARTZEA

Eskualdeetako legebiltzarrek egiteko relativo bezain garrantzitsua betetzen dute Europako Batasunaren bizitzan eta horri buruzko eztabaidan. EELBk lankidetzaz indartu egin nahi du Eskualdeetako Lantaldearekin (subsidiariorotasunari buruzko protokoloa abian jartzea zabaltzeko akordioaren bitartez), Europako Legebiltzarrarekin (demokraziari dagokionez, baina baita legegintza-kontuei buruzko elkarriketari eta lankidetzaz leialaren printzipioari dagokionez ere), Europako Batzordearekin (elkarriketaz egituratuari eta gobernagarritasunari dagokionez), Europako Kontseiluarekin (eskualde-demokraziari buruz) eta legebiltzar nazionalekin (subsidiariorotasuna eta legebiltzarren arteko lankidetzaz).

EELBk eskerrak ematen dizkie lehendakariari CALRE.net elkartearen bitartez sortutako legebiltzarren arteko lankidetzarako emandako laguntza teknikoa, bertan Batzorde Iraunkorreko lehendakariak eta hurrengo lehendakariak hartzen baitute parte.

Europako Eskualdeetako Legebiltzarren Batzarrak aurrera egingo du adierazpen honi erantsita doan lan-egitarauarekin, eta Batzorde Iraunkorriari eta Lehendakaritzari aginduko die egitarau hori abian jartzea. Era berean, dei egiten die Europako legebiltzarrei alde horretatik etorkizunerako ekimen gehiago proposa ditzaten.